

# IKASCOFFEE

Gure ideia liburutegi eta kafetegi bat da, baina beste enpresetan ez bezala gure bezeroek bi zerbitzu hauekleku berean aurkitzeko aukera izango dute. Ikasteko edo irakurtzeko gune eroso, lasaia eta kontzentratzeko ezinobea bilatzen baduzu etorri Ikascoffeeera. Kafeaz zein liburuaz gozatzeko aukera izango duzu. Gainera Zorrozaurren daukagu lokala, xarma handiko auzoa da, txoko berezi asko baititu inguruan.

Bigarren eskuko liburuak eskuragarri izango dituzu, hauek erosteko aukerarekin. Baita ere, gai interesagarriei buruzko hitzaldiak antolatuko ditugu eta irakurketa sustatzen duten ekintzak, esate baterako, ipuin-kontalariak. Ordenagailuekin lan egiteko aukera izango duzu ere, ikasteko eta irakurtzeko gunean ditugun ordenagailuak erabiliz.

